



txanela

Irakaslearen gidaliburua (zirriborroa)

Lehen astea

(Txanela - Material globalizatua, Lehen Hezkuntza - 1. maila)

OPORRAK

Hasierako egunetan, elkar ezagutzen hasteko, jolastu, abestu, dantzatu, ipuinak kontatu, marraztu, materiala ordenatu eta ohitura batzuk finkatzen hasteaz gain, **oporren inguruko hainbat jarduera** egitea proposatzen dizuegu. Aurkeztuko dizkizuegun jarduerak, sekuentzia bat osatzen dute.

Lehenik eta behin ikasleek idatzitako ohar bat bidaliko diegu gurasoei, oporretako argazkia ikastolara lehenbailehen bidaltzeko eskatuz. Argazki horiek, ikasleen ezaugarri pertsonalak, udako bizipenak eta familiako kideei behatzeko eta horiez era positiboan hitz egiteko baliatuko ditugu. Lan horiek egiten ditugun bitartean, *Bai, bai oporrak joan dira* abestia ikasiko dugu. Bukatzeko, gelako liburutegian jartzeko, oporretako bilduma guztion artean osatuko dugu, haurrek ekarriko dituzten argazkiekin.

Jarduera hauek aurrera eramateko, badituzue hainbat lagungarri: gelako ohiko materialaz gain, abestien CDa, irakurgaiak, liburu digitala (zoom-liburua) eta material osagarria...

Hurrengo orrietan proposatu dizkizuegun jardueren deskribapena aurkituko duzue.

Jardueren azalpena

1. JARDUERA	ARGAZKIAK EKARTZEKO OHARRA
ZIKLOKO HELBURUA	
1.8 Ohiko generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesioei eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
(Hasierako) EBALUAZIO IRIZPIDEA	
<p>1.8.7 Norberaren testua berrikusten du modu gidatuan eta zuzenketa batzuk egiten ditu.</p> <p>1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian / Bakarka
MATERIALA	Nahi izanez gero, Denboraren makina I CD-ROMa: idazketa tailerra
AZALPENA	
<p>KOMUNIKAZIO EGOERA AZTERTU, IDEIAK SORTU ETA ORDENATU</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikazio-arazoa konpontzeko zer egin dezakegun galdetuko diegu hurrei. Adibidez: <i>Gurasoei argazkiak behar ditugula adierazi nahi diegu. Zer egin dezakegu?</i> ▪ Haurren ideiak arbelean, letra larriz, idatziko ditugu. Adibidez: telefonoz deitu, gurasoei esan, gutun bat idatzi... Ondoren, gure asmoa aurrera eramateko aukera egokia zein den erabakiko dugu. ▪ Testuaren ezaugarriak, hau da, helburua eta egitura talde handian aztertuko ditugu. <p>EDUKIA GARATU, HIZKUNTZA FORMA EGOKIAK BILATU ETA KODIFIKATU</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Idatzi behar duten testuaren ahozko planifikazioari ekingo diogu. ▪ Idatz dezakegunaz hitz egingo dugu, testuan azaltzen denaz arrazoituz eta proposatzen dutenaren egokitasunaz hitz eginez. <p>BERRIKUSI ETA EDITATU</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Arbelean elkar jartze, zuzentze, adoste... lana egin ondoren, testua berrirakurri egingo dugu. ▪ Bakoitzak bere paperean kopiatzeko eskatuko diegu. Ekoizpen-lana aurretik egina dagoenez, hau izan daiteke kopia proposatzeko ordua, hau da, letraren txukuntasunean arreta jartzeko ordua. 	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...	

2. JARDUERA	OPORREN INGURUKO ELKARRIZKETA
ZIKLOKO HELBURUA	
<p>1.4 Ahozko aurkezpen sinpleak egitea, eskolako jardurekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (burututako lanen aurkezpena, gertuko gertaera eta esperientzien kontaketa, bizipenak...), eskainitako jarraibideen laguntzaz.</p>	
(Hasierako) EBALUAZIO IRIZPIDEA	
<p>1.4.2 Gutxienezko koherentziak (denbora sekuentzia errespetatuz) adierazten ditu ideiak. 1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu bere ideiak.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Oporretako argazkia
AZALPENA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleak bere oporretako argazkia ekarri duela esango die ikasleei. Ondoren, ea ikusi nahi duten galdetuko die. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, irakasleak oporretako argazkia erakutsiko die ikasleei: non, norekin eta zertan ari den azalduz. ▪ Ikasleei galderak egiteko aukera emango die. Galderarik ez badago irakasleak berak azalduko du nola joan zen, lekua nolakoa den eta non dagoen, ea gustura egon zen edo ez, eta zergatik, ikastolara itzultzean nola sentitzen den... ▪ Denok elkarrekin, irakasleak eman duen informazioa aztertuko dugu, aurkezpenetarako gidoi bat osatzeko asmoz. Hitz klabeak (<i>non?</i>, <i>norekin?</i>, <i>zertan?</i>, <i>nola?</i>, <i>nolakoa?</i>, <i>zer moduz?</i>) arbelean idatzita utziko ditugu ikasleek beren aurkezpenak egiten dituztenean informazio hori eman dezaten, edo beste ikasleek galde diezaioten. ▪ Ikasle bakoitzak talde osoari erakutsiko dio bere argazkiak, gutxienez non, norekin eta zertan ari den azalduz. Ondoren, gainerako ikasleei galderak egiteko aukera emango diegu. ▪ Guztiek saio berean egin beharrean, egunero bi edo hiru lagunei eman txanda, betiere, lotsatiak edo hizkuntzarekin zailtasunak dituzten haurrak azkenerako utzita. Adierazpenean zailtasunak azaltzen dituztenei galderen bidez lagunduko diegu. 	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...	

3. JARDUERA	ABESTIA: BAI, BAI OPORRAK JOAN DIRA.
ZIKLOKO HELBURUA	
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (fonemak, grafiak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea, eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p>	
(Hasierako) EBALUAZIO IRIZPIDEA	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentzietan erlazioak ezartzeko interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta dagokionean buruz ikasten ditu.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak, 6. eta 7. or.; abestien CDa (1. pista): <i>Oporrak joan dira</i>
AZALPENA	
<p>IRAKURRI AURRETIK</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Abestia entzun, eta ikasleei galdetu, ea ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, buruz ikasteko prozedura martxan jarriko dugu. ▪ Esaldiak musikarik gabe errepikatu. Esaldiak keinu jakin batekin lotzen badituzue, hitzak erraz gogoratuko dituzte. ▪ Esaldiak musikarekin errepikatu. ▪ Elkarrekin abesti osoa abestu. <p>IRAKURRI BITARTEAN</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Minutu batzuk emango dizkiegu testua bakarrik irakurtzen saiatzeko. ▪ Talde handian egingo dugu irakurketa, irakasleak gidatua. ▪ Esanahiaren inguruko hausnarketa bultzatuko dugu galderak eginez eta edukia pertsonalizatuz: <i>Nola sentitzen dira liburuko haurrak? Zergatik? Zuek ere irten nahi duzue plazara?</i> ▪ Errepikatzen den hitzik ba ote den galdetu. Inork erantzuten ez badu beharazi "bai" hitza testuan eta ikusten duten bakoitzean borobiltzeko eskatu. ▪ Talde handian berriro irakurriko dugu abestia. "Bai" hitza ikusten duten bakoitzean txalo egiteko eskatuko diegu ikasleei. ▪ Irakasleak proposatzen dituen hitzak bilatzera jolastuko gara. <p>IRAKURRI ONDOREN</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Errepikatzen den hitzaren kontsonanteak arbelean idatziko ditugu eta tarteak bokalekin osatzera jolastuko gara. (b__) ▪ Biribildu dugun hitza bezala hasten diren beste hitz batzuk arbelean zerrendatuko ditugu. ▪ Testua desordenatuta eman beraiek berreraikitzeko. Horretarako testuaren kopia atera beharko dituzue, eta esaldika moztu. Irakasleak binaka jarri eta testua osatzen duten esaldiak eman. Beren lana izango da esaldiak paperean ordenatuta itsastea. 	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...	

4 . JARDUERA	OPORRETAKO ARGAZKI BILDUMA
ZIKLOKO HELBURUA	
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza (marraskia eginez gero).</p>	
(Hasierako) EBALUAZIO IRIZPIDEA	
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (fonemak, grafia, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburuak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko (marraskia eginez gero).</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Bakarka
MATERIALA	Oporretako marraskia edo argazkia eta material osagarriko fitxa
AZALPENA	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasleei jakinarazi oporretako bilduma egingo dugula denon artean, oporretan zein gustura ibili garen urte osoan gogoratzeko. ▪ Arduradunek material osagarria duen liburuxka banatuko dute eta norberak bere liburuxkaren lehenengo orria askatuko du. Ondoren, arduradunek berriz jasoko dituzte material osagarri guztiak. ▪ Ikasleek aurkezpenarako erabili duten oporretako argazkia, "Nire oporrak" izenburua duen fitxan itsatsiko dute. ▪ Argazkiaren azpian zer idatzi dezaketen galdetuko diegu. Guztion artean, testuaren ezaugarriak aztertuko ditugu. Horretarako, egokia izan daiteke argazkien aurkezpenak egiteko erabili genuen gidoia gogora ekartzea, orduan, argazkien inguruko ideiak sortu eta ordenatu baikenituen. ▪ Norberaren fitxan bakoitzak bere erara idatziko du. Ikasleen hizkuntza idatziaren mailaz jabetuko gara. Beraz, lehen ariketa hori, test moduan erabil dezakegu, haur bakoitza zein fasetan aurkitzen den jakiteko. ▪ Irakasleak ikasleei banan-banan eskatuko die idatzitakoa irakurtzeko. Idazketa alfabetikora oraindik iritsi ez diren haurren ekoizpenak azpialdean transkribatuko ditu. Kontuan hartu transkripzio horiek ekoizpenaren une berean egin behar direla; bestela, hurrek ahaztu egiten dute zer idatzi nahi zuten. Horregatik, jarduera hau bi saioetan egitea aholkatzen dugu. Hartara, saio bakoitzean gela erdiaren testuen transkripzioa baino ez duzue egin behar izango. 	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...	